



23 urtez azpikoen txapela jantzi nahi dute Rekondo eta Otaegi aizkolariek

FINALA ▶ Urrezko Aizkolaria txapelketan izango dira aurrez aurre leitzarra eta zizurkildarra bihar, Azpeitian

LANA ▶ «60 ontzakoa da koska» Otaegirentzat; Rekondo «banakako lanetan gusturago» aritzen da ▶ 7



Rekondo leitzarra (ezkerrean) eta Otaegi zizurkildarra, San Isidro egunean. Orain aurkari izango dira. I. G.

ANOETA ▶

Korpus Jaiek hartuko dute herria datozen bi asteburuetan

Udalaren egitarauari bihar ekingo diote, eta Herri Borondatearen Aldeko jaiak gaur hasiko dira ▶ 4

IBARRA ▶

Errealitate ezberdinak argazkietan islaturik

Angel Cuerdoren 'Kolorezko mundua' erakusketa ikusgai ▶ 6



Umeen begiradak. ANGEL CUERDO

TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶

Finalerdietan sartu da HITZA Pilota Txapelketa

Gaur, alebin eta infantil mailakoenak; bihar, benjaminak eta seniorrak ▶ 5

Gure gomendioa



Dieranak
Pablo Irujo



E. H. Iturrizarren abiatan
Jose Felix Diaz de Tuesta



Urteetan
Irene Elizaga



El reflejo de las palabras
Kaber Aizola

GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Lizarra,
1931-2006

Egun gutxi barru, hilaren 14an, 75 urte beteko dira Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaiko 427 udalek Lizarrako Estatuto Vasco-Navarro deiturikoa lehen aldiz onartu zutela. Orduan, Lizarrako udaletxeko batzarrean onarturiko estatutuaren testuak lau herrialdeetako konfederazioari estatu izatera ematen zion neurrian, Euskal Herriaren aitortza politikoa egiten zen, nahiz eta Espaniako Errepublikaren Federalaren baitan izan.

Orduko hura ez zen Euskal Herriaren historian gertaturiko ekimen bakana eta isolatua izan. Azken bi mendeotan, Frantziako eta Espaniako estatuek Euskal Herriaren aitortza politikoa eta instituzionala egin dezaten ekimen desberdinak burutu izan dira behin eta berriro.

Orain, Euskal Herriaren aitortza politikoa eta hitza eta erabakitze gaitasuna errespetatzearen alde abian jarritako ziklo politikoa berria ere bo-

rroka beraren azken entsegu eta ahalegina dugun neurrian indar eta kemen guztiak horren zerbitzura jartzea eskatzen zaigu.

Egun, Lapurdiko, Baxe Nafarroako eta Zuberoako auzapezen ekimenez, Euskal Herriko lurraldetasuna eta berezko izatera politikoa instituzionala Frantziako estatuak onar ditzan, erreferenduma deitzeko beharrezkoa den sinadura bilketa erraldoia hasi dira burutzen.

Urte eta mende luzetan burujabetza berreskuratze saiakera guztiek, lehengo eta oraingok, herri honen grina eta borondate zapuzteza erakutsi dute. Behin eta berriz tronpatu dira, mendeetako aldarrikapen honen aurrean, ukazioa eta eskubideak mugatzeko joera izan dutenak. Eta etorkizunean ere, beste horrenbeste gerta dakioke sustraletara jo beharrean epelkerietara eta sasi aukeretara mugatu nahi duenari.

Duela 75 urte Euskal Herriko udal hautetsiek Lizarran adierazi zuten borondate politikoa eta instituzional berbera

antzematen da gaur ere udalari eta herritarrengan. Horregatik, gaur egungo udal hautetsiok ere, 1999an sortu genuen Euskal Herriko udal eta udal hautetsien biltzarra den Udalbiltzaren ekimenez Lizarran ospatuko dugun ekitaldi instituzionalan, ordukoen lekukoa hartu eta estrategia gaurkotuz, jadanik abian den nazio erakuntzaren aldeko konpromisoa berresteko aldarria egin nahi dugu.

Udal hautetsiek, 1931an bezala eta geroago Bergarako alkateen mugimendua erakutsi zuten bezala badugu herritarrenganako dugun gertutasunarengatik herri eragiletzan erreferentzialtasuna eta aitzindari izateko borondatea.

Gure herriaren historia goraberatua izanik ere, baditu une historikoak zeinetan jarrera eraginkorrak eta ausartak hartzea eskatzen zaigun. Orain abian jarri dugun zikloak jokaleku politikoa eta herri eragiletzan aktiboki parte hartzea eskatzen digu, eta komeni da, gainera, Euskal Herriaren aitortzaren aldeko indarrak bateraturik eta antolatuturik ekitea.

Hori dela-eta Lizarrako udalen batzarraren 75. urteurrenean Udalbiltzaren berrantolaketa-aren aldeko adierazpena plazaratuko dugu.

Udalbiltzak sorreratik bertatik Euskal Herriak nazio gisa aitortua izateko eskubidea aldarrikatu zuen. Izan ere, gaur egun pairatzen dugun estatuerik gabeko nazio izate hau ez da euskal herritarrok demokratikoki erabaki dugun estatuta; aldiz, bada etorkizunean Europako beste nazio askok bezala eta inoren armen meatusurik gabe libreki eta demokratikoki erabaki nahi dugun auzia: nazio gisa geure garapen politikoa eta instituzionalaren jabe izatea.

Euskal Herriak mendeetan ezin izan du bakean bizitzeko eskubidea gauzatu. Euskal herritarren iritzi eta proiektu politikoak kontrajarriak egonik, estatu espaniarrak eta bertako herritarren borondatearen gailuetik etengabeko esku hartzea egin dute, herri kontzientzia itzaliz eta geroa geure kabuz erabakitze eskubidea ukatuz.

Azkenaldian, irmotasunez

erantzun dugu etorkizunari begira bizi gura duen herria garena eta dagozkigun eskubideen jabe izateko borondate irmoa dugula adieraziz.

Hautetsiok gainerantzeko herritar eta arduradun politikoekin batera erantzukizun ahazteza eta albora ezina dugu geure baitan: herritarrek urte luzetan erakutsi duten heldutasun eta borondateari sendotasunez eustea eta geure erantzukizunen baitan aukera historiko honetaz baliatzea, behingoz, urtetan aldarria izan dena erreallitate bihurtu dadin eta inork gehiago baldintza ez dezan herritarren erabakia dena, herritarren borondatez ez bada.

Euskal herritarren eskubide guztiak, Euskal Herri osoan gauzatzea, atzera bueltarik gabeko ekimena izan dadin guztion Udalbiltza berriz antolatzeko deia luzatzen diogu Euskal hautetsi guztiei eta Lizarran, hilaren 10ean [bihar, larunbata], jarriko dugu horren mugarrira.

ANTTON IZAGIRRE ▶

TOLOSA BIZIRIK-EKO HAUTETSIA ETA
UDALBILTZAKO KIDEA (TOLOSA)

GIZARTEA ▶

Txinpartaren
II. Pintura
LehiaketaFelix Yarzaren omenezkoak Tolosaren
750. urteurrena izango du ardatz

ERREDAKZIOA

Txinparta elkarteak, Tolosako Udalaren eta Gipuzkoa Donostia Kutzaren laguntzarekin, II. Pintura Lehiaketa antolatu du, *Tolosa: 750. urteurrena* gaiarekin. Bere urteko programaren baitan barneratu du kultur ekimen hau, eta Felix Yarzaren omenez egingo dute.

Tolosaldean jaio diren edo bertan bizi diren artista guztiek parte hartu ahal izango dute. Halaber, lehiaketa parte hartu nahi dutenek, hainbat oinarri bete beharko dituzte. Aurkeztuko dituzten obrek —gehienez bi obra beharko dute izan lehiakide bakoitzeko— originalak izan behar dute, «teknika librez eta gehieneko 73x60 zentimetroko formatuan eginak».

Koadroak hil honen 14tik 16ra bitarte entregatu beharko dituzte parte-hartzaileek Txinparta elkartearen bertan, 19:00etatik 21:00etara. Lan asko bilduz gero, batzorde antolatzaileak lehiakide bakoitzeko obra bakarra aurkezteko eskatu ahal izango luke. Epaimahaiak San Joan jaien baitan, hil honen 23an, emango ditu irabazleen izenak, eta ondorengo bi egunetan zehar erakusgai jarriko ditu lanak elkartearen lokalean.

Hiru margolari trebeenek sariak jasoko dituzte. Dirua izango da, hain zuzen ere, saria; hala, lehen sailkatuak 240 euroko saria izango du; 180 euro izango dira bigarrenaren zatia eta hirugarren sailkatuko denak 120 euro poltsikoratuko ditu.

AGENDA 21 ▶



Udalaren eta Udalsarearen arteko hitzarmena

Erredakzioa ▶ Jokin Bildarratz Tolosako alkateak, eta Esther Larrañaga Ingurumen eta Lurralde antolamenduko sailburu eta Udalsarearen lehendakariak lankidetzara hitzarmena sinatu zuten atzo —argazkian—, *Tolosa 2015* udal estrategia jasangarritasunari begira proiektua lantzeko. Jasangarritasunerantzko bidea lortzeko

asmatan Tolosako Udalak urteak daramatza lanean «Tokiko Agenda 21eko Ekintza Plana sustatzeko». Eusko Jaurlaritzak, bere aldetik, «laguntzeko duen borondatea agerian gelditu da». Hitzarmenaren bidez, Udalak eta Eusko Jaurlaritzak «indarrak batu dituzte» *Tolosa 2015* proiektua garatzeko. NOELIA LATIBURU

TOLOSA ▶ ARETO FUTBOLA

Zazpigarren postuan amaitu du Hegoaldeko 2005-06 denboraldia

Lehenengo itzulia jaitsierako postuetan amaitu bazuten ere, bigarrenen gauzak hobeto joan zaizkie, eta gora egin dute

ESTI EZEIZA

Amaitu dute denboraldia Hegoaldeko neskek. 30 jardunaldiren ondoren, 7. postuan bukatu dute Tolosakoek. Azken partida Femesala Elxen aurka jokatu zuten, eta 7-1eko emaitzarekin galdu.

Talde berriarekin, denboraldia nahiko gaizki hasi zuten, baina bigarren itzulian gauzak aldatu ziren eta pixkanaka igo-zea lortu zuten.



Hegoaldeko neskek, partida batean. J. SAIZAR

ISA BARRIO ▶ HEGOALDEKO JOKALARIA

«Hobeto hasi izan bagina, taldeak bazuen gorago geratzeko aukera»

Isa Barriko (Tolosa, 1974) berderatzi urte daramatza Hegoaldeko jokatzeko. Txikitatik gustatu izan zaio futbola, eta taldean urte gehien daramatzanetakoa bat da bera. Denboraldi hau amaitu berri badute ere, hurrengoetan jarraitzeko asmoa du.

Orokorrean, denboraldi honetako zer balantze egiten duzu?

Lehenengo itzulia nahiko kas-karra izan zen, gaizki joan zen, eta jaitsierako postuetan-edo geratu ginen. Bigarrenen, ber-ritz, ez dakit zergatik, entrena-tzaile aldatuagatik edo, beste gauza bat izan da.

Aurrikuspenak bete al dituzue? Nola ikusi duzu taldea? Hobeto hasi izan bagina, talde-



HITZA

ak bazuen sailkapenean gorago geratzeko aukerarik, baina lehenengo itzulia horren kas-karra egin genuen... Bestalde, taldearen aldetik ondo, jende berria, giro ona...
Eta orain...

Bilera bat dugu, eta bertan ikusiko da: entrenatzailek jarraituko duen edo ez, taldeak eta... Taldeak jarraituko du, baina zailtasunak ditugu, Kirolgik diru laguntzak igotzea nahi dugu eta babesle gehi-ago lortu beharra dauzkagu. Bestetik, bajaren bat ere egon-go da.

Zer moduz ikusten duzu nes-ken areto futbola Tolosaldean?

Gaizki, areto futbola bera gain-geheran doa, Gipuzkoako Liga probintzian ere maila kas-karra dago. Guri ere asko kos-tatu zaigu atezain bat aurki-tzea. Gauzak asko aldatu dira, oraingo 16 urteko neskek bes-te lehentasun batzuk dituzte, eta sakrifkatzeko gogo gutxi.

IBARRA ▶ ARETO FUTBOLA

Euskal Kopako finalerdietan da Ibarra

Astraburuaren aurka 4-9 irabazi ostean, UPV Gipuzkoa izango dute orain aurkari



2005-2006 denboraldiko Ibarra areto futbol taldeko jokalariek. HITZA

E. EZEIZA

«Erosotasunez», 4-9ko emaitzarekin irabazi zuten Ibarrak larunbatean, Astraburu-ko talde Bizkaitarraren aurka. Hala, norgehiagoka honen ondoren Euskal Kopako finalerdietara-ko sailkatu dira ibartarrak.

Jose Manuel Tobias presn-tsa arduradunak aditzera eman duenez, «aise irabazi zuten partida, jokaldiaren hasieratik eskualdekoak gailen-du ziren», Tobiasen hitzetan, «larunbateko entrenamendu bat besterik ez zen izan». Intentsitate faltagatik eta polita-go egin nahi izateagatik, ahal zituztenak baino gol gutxiago sartu zituzten ibartarrek. Jokalariek ederki pasatu zuten norgehiagokan, eta jokaldi bi-kainak ikusi ahal izan ziren.

Partida hasi eta lehengo mi-nuturako, alboko sake baten ondoren David Pradosek eta Lander Camiok errematatu, lehenengo gola sartu zuten Ibarra-koek. Tobiasen esane-tan, «nagusitasuna horren-bestekoa zen, non Astraburu-koak tarteka arrakastarik ga-beko kontraeraso batzuk egitera mugatzen ziren». Hala, sei garren minutuan, Jon An-der Carreraren eskutik etorri

zen bigarren gola. Minutu gu-txitan markagailuak aldateta ugari jasan zituen: hasteko, bizkaitarrek kontraeraso ba-tean beraien lehenengo gola sartu zuten, markagailuan 1-2 jarriz. Baina golaren pozak gutxi irauin ziren, minutu bat baino lehenago Blanche-ibartarren hirugarren gola sartu baitzuten. Eta lehenengo denbora amaitu baino lehen Unai Labakak sartu zuten lau-garren gola. Lehen zatiko az-ken minutuetan, Alberto Mi-randa bizkaitarrak lortu zuen markagailuan 2-4koa jartzea. Horren aurrean, atsedena baina lehen, arriskuak ekidi-teko asmoz, Unai Labakak 2 eta 5koa lortu zuten.

Bigarren denboran gauzak aldatu ziren, hamaika minutu behar izan zituzten ibartarrek lehenengo gola sartzeko eta hortik aurrera mugimendua hasi zen. 4-9an amaitu zen, az-kenean, partida.

Datorren larunbatean etxe-an jokatuko dute Ibarra-koek. Finalerdi honetan aurkari UPV Gipuzkoa taldea izango dute. Tobiasen ustetan, «au-rerreratutako final bat izan dai-teke oraingoa». Izan ere, biek ere aukera asko dituzte ho-rraino iristeko.

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA

2006 Harpidetza kobraketa kanpaina

ILARAK, FAKTURAK, KOMISIOAK... AHAZTU!
HELBIDERATU ZURE KUOTA
EROSOAGOA eta 2 ZATITAN ORDAINTEKO AUKERA
egunean 0,18 zentimoren truke buzoian


ANOETA ▶ JAIK

ERREDAKZIOA

Anoetako Korpus Jaiak ate joka ari dira. Asteburu hone-tan hasi eta datorren asteburu-arte izango da zer egin eta ikusi herrian. Aurreko bi urteetan bezala, bi festa egitarau antolatatu dituzte. Alde batetik, Udalak prestatutakoa eta, bestetik, Herri Borondatearen Aldeko Jaiak izenekoa, herriko hainbat eragileren ekimenez.

Udalak antolatutako egitaraua bihar hasiko da gaztetxo-en arteko pilota txapelketaren finalarekin. Benjamin, alebin, infantil eta kadete (azkenekoan mutilak soilik) mailako pilotari-riak lehiatuko dira, hamalau partidetan. Bihar ere, herriko artisten eta eskulanetako taldeen lanen erakusketa inaurratuko dute. Etzi, kadeteen arteko pilota partidak, txirindulari lasterketa eta Villabona, Tolosa, Alegia, Irura eta Anoetako dantzari txikien —ehundik gora parte hartuko dute— emanaldiak izango dira. Bestalde, Korpus Jaiak jarraipena izango dute San Joan bezperan eta egunean bertan ere.

Herri Borondatearen Aldekoak gaur hasiko dira. Aipatzekoa, frontoian egingo den herri antzerkia. *El Florido Pensil* antzeztuko dute Anoetako kutsua emanez. Bihar, ekitaldien artean, herri dema berezia egingo dute segaren inguruan. Bi talde izango dira: bata gaztez osatuta eta bestea «ez hain gaztez». Talde bakoitzeko segalari-ek 10 minutuko lana egingo dute eta gero, 30 minututan, be-lar biltzaileek beste taldearen belarra jaso, lera batean kargatu eta plazak egin beharko dituzte. Etzi, ekitaldirik aipagarriena herriko baserritarren eta artisauen azoka da. Tarteen arkumeei ilea nola moztzen zaien erakutsiko da.

Bi egitarauetatik at, gazteek Koadrilen Eguna antolatuko dute biharko. 19 koadrila eta 200 lagun inguru bilduko dira. 13:00etako txupinazoaren ondoren trikitipoteoa egingo dute. 14:30ean bazkaria, 16:30ean jokoak eta 21:00etan hasiko den afariarekin amaituko dute.

Korpusak ate joka

Asteburu honetan hasi eta hilaren 18a arte nahiko ektialdi izango da festarako



laz egindako dantzari txikien emanaldiaren une bat —ezkerrean— eta biharko herri dema parte hartuko duten herritarrak. HITZA



EGITARAUAK ▶

KORPUS JAIK

BIHAR

09:00. IX. Eskuzko Pilota Herri Txapelketako finalak.
12:30. Herriko artistek eta eskulanetako taldeak eginiko lanen erakusketaren inaugurazioa udaltxearen. Hamaiketako eskainiko da. Erakusketa ikusgai izango da 12:30etik 14:00etara eta 18:30etik 20:30era, jai egunetako asteburuetan.
23:00. Laket taldea plazan.

ETZI

11:00. Zezenxoak eta ponyak plazan.
12:00. Pilota partidak.
12:15. Buruhandi eta erraldoien kalejira txistulariekin.
16:00. Txirindulari lasterketa Mikel Oiarzabalen eta Andoni Urkolaren omenez.
17:00. Dantza taldeen emanaldia. Ondoren, merienda dantzari frontoian. Gero, Joseba eta Andoni trikitilariak.

HILAREN 14, ASTEAZKENA

18:45. Kukuaren etorrera iragarriko dute txalapartariak.
19:00. Jaien hasiera plazan: txupinazoa. Kukuaren jaitsiera kanpai hotsekin eta ume eta

gaztekoen danborrada, Lagunak txarangarekin. Parte-hartzaileen artean barraketako fitxen zozketa.
19:15. Sardina jatea.
23:00. Jauregi eta Oihana trikitilariak plazan.

HILAREN 15, OSTEGUNA

Korpus, Umeen eguna
Barrakena prezioa merkeagoa.
10:30-13:30 eta 15:00-17:00. Ume eta gaztekoentzako parkea.
17:30. Buruhandi eta erraldoiak plazan.
19:00. Loatzokoan kontzertua.
23:00. Beñat eta Maider trikitilariak.

HILAREN 16, OSTIRALA

11:00. Herriko jubilatuen arteko toka txapelketa plazan.
17:30. Buruhandi eta erraldoiak plazan.
19:00. Haur eta helduen play-back-a plazan.
23:00. Beste Bat taldea.

HILAREN 17, LARUNBATA

11:00. Zezenxoak eta ponyak plazan.
12:15. Buruhandi eta erraldoien kalejira txistulariekin.
15:30. Mus txapelketa.
17:30. Txokolata jatea.

18:00. *Sambhu* haurrentzako ikuskizuna.

19:00. Tolosaldea bailarako Bakailaoa Saltsa Berdean VIII. Lehiaketa.
20:30. Herri afaria frontoian, Mikel Mendizabal eta Iñaki Murua bertsolariekin.
23:00. Tahuma taldearekin kontzertua plazan: saltsa, merenge, tangoak, balsak...
00:30. Disko Festa plazan, DJ Omar-ekin.

HILAREN 18, IGANDEA

11:00. Txistulariekin kalejira.
11:30. Meza nagusia.
Ondoren, Eresargi Abesbatza.
12:00. Sagardo dastaketa, txorizoarekin.
17:30. Herri kirolak plazan.
19:30. Alurr dantza taldearen emanaldia plazan.

HERRI BORONDATEAREN ALDEKO JAIK

GAUR

19:30. Konzentrazioa AHTren kontra.
22:30. Herri antzerkia frontoian.

BIHAR

11:15. Herriko plazatik kalejira Argindegiko atzeko zelaietara.
11:30. Herri dema.
23:00. DJ Bull-en emanaldia.

ETZI

10:00. Herriko baserritar, artisauro eta artisten azoka. Goizean zehar EHNA tramitatzeko aukera eta haurrentzako pilota tailerra. Ondoren, bazkari herrikoia.
17:00. Mus txapelketa.

HILAREN 14, ASTEAZKENA

18:30. Herri Borondatearen Aldeko Jaien hasiera: txupinazoa, pregoia...
19:00. Konzentrazioa PNV/EA: hiru urte anoetarron

eskubideak urratzen.

Konponbidea orain lelopean. Ondoren, trikitipoteoa herriko trikitilariak alaiturik.
23:00. Herriko trikitilarien erromeria.

HILAREN 15, OSTEGUNA

Mozorro Eguna
16:00. Haurrentzako jolasak.
17:00. Txokolata bizkotxoekin.
18:00. Patxin eta Potxin pailazoak. Ondoren, moztzerroen desfilea buruhandiek eta txistulariekin.
20:00. Patata tortilla lehiaketa.
21:00. Sahieski jatea.
Afalostean, AHTren aurkako DVDaren proiektzioa.
23:30. Kontzertua: Jone eta Desordutan.

HILAREN 16, OSTIRALA

19:00. Sagardo dastaketa trikitilari eta bertsolariek alaiturik.
20:30. Bertso afaria Iker Zubeldia, Iban Urdangarin eta Amaia Agirre bertsolariekin.
24:00. Manifestaldia PNV/EA, anoetarron eskubideak errespetatu. Ondoren, kontzertua: Sexty Sexer eta Izeba Pilarren llobak.

HILAREN 17, LARUNBATA

Gazteen Eguna
18:00. Gazteen kalejira.
21:00. Herri afaria.
23:30. Gazteen dantza emanaldia plazan.
24:00. Kontzertua: Skamatxin eta beste talde bat.

HILAREN 18, IGANDEA

13:00. EHNA: egin eta erabili ekitaldia: dantzariak, txistulariak, txalapartariak... EHNA tramitatzeko aukera. Zozketa egingo da.
21:00. Afaria txistekontalarietara. Ondoren, musika herriko DJekin.

Zuloaga & Gureak-en zure landarea dago.

“Zatuz gure instalazio berriak ezagutzera eta zure landarea aukeratzeko orduan edo eta zurekin gehien dijoan loraintza proiektu hori aurrera eramateko behar duzun aholkularitza izango duzu.”

Ramón Zuloaga (Zuloaga & Gureak-eko Gerentea)

943 556 109 - Iparralde bidea z/g. 20014 Astigarraga. Futbol zelaia-aren aurrean.

ZULOAGA & GUREAK
zure konfidantza zokora

PILOTA ▶

HITZA Pilota Txapelketa azken txanpan sartu da

Gaur eta bihar jokatuko dituzte hiru maila txikiaren finalerdiak, eta senior mailako bat

N. URBIZU

Gaur eta bihar benjamin, infantil eta alebina finalerdiak jokatuko dituzte HITZA Pilota Txapelketako partiden baitan. Senior mailako finalerdiak partida bat ere jokatuko dute Beotibarren, bihar. Txikien artean eskualdeko hainbat jokalariek daude: amezketarrak, leizarrak, alkizarrak eta tolosarrak.

Luis Galarraga HITZA Pilota Txapelketako antolatzaileak esan zuenez, «eskola mailako partidak oso ondo joan dira, bai antolakuntza aldetik, jokalariek ez dute hutsik egin eta, gainera, maila aldetik ere hobetuz joan dira. Final politik ikusteko aukera izango dela iruditzen zait».

Dena dela, aurten zerbait azpimarratzekotan, «Beotibar pilotalekuaren gaineko arazak izan dira». Antolatzailearen esanetan, «pilotan helduagokoek jokatzeko egokia da, aproposa eta berezia. Baina larunbatetan bertan jokatzeko aukerak murriztu egiten zaizkigu: 8 asteburuetatik, 3 soilik jokatu ahal izan ditugu. Aurrera Saiaz pilota eskolak astean zehar egiten dituen entrenamenduak alde batera

FINALERDIAK ▶

BENJAMINAK

Alegia. Bihar, 17:00etan.
▶ Almandoz-Azpiroz / Sagastume-Altuna.
▶ Mitxelena-Azpiroz / Telletxea-Mitxelena.

ALEBINAK

Albiztur. Gaur, 19:00etan.
▶ Urdangarin-Jaka / Untxalolo-Apeztegia.
▶ Agirre-Erostarbe / Erdozia-Urkizu.

INFANTILAK

Aduna. Gaur, 19:00etan.
▶ Urbieta-Zinkunegi / Urrutia-Zubizarreta.
▶ Taberna-Ugalde / Jaunarena-Olano.

SENIORRAK

Tolosa. Bihar, 09:30ean.
▶ Beloso-Huarte / Baez II.a-Gutierrez.

utzi behar izan ditu, partidak orduan burutu ahal izateko». Luis Galarragaren ustetan, «Tolosako Udalak pilotarekin ez du kontzientziatorik, nahiz eta kirol zaharrena eta herrikoiena izan. Erakusten duen jarrera ez da normala».



HITZA Txapelketako lehen neurketak apirilari hasi zituzten. N. URBIZU



HEZKUNTZA ▶

Eskualdekoak ere, Eskola Txikien Festan

Igeldon ospatuko dute ekitaldiz beteriko festa eguna, bihar



Albizturko eskolan Realeko Jauregi eta Gabilondo egon ziren, eskola txikien ekitaldien barne. N. URBIZU

NEREA URBIZU

Eskualdeko hainbat eskola txikiko ikasle eta irakasleak Igeldora joango dira bihar hainbat ekitaldi egitera. Igeldoko eskola txikiaren inguruan egingo dituzte ekitaldiak, 10:00etatik aurrera. Izan ere, antolatutako ostean, 10:30ean, haurtzetako jolasak hasiko dira.

13:00ean, urtean zehar egin dituzten hainbat ekintza ezberdinak kontuan izanik, haren gaineko liburu bat aurkeztuko dute. Izan ere, Igeldokoek liburu bat egin zuten. Bertan, idazle ezagunen kolaborazioak izan dituzte. Urtean zehar

ere, eskola txiki ezberdinak ikasleek, haien eskola txikia nola ikusten zuten idatzi zuten; hau da, *Gure mundu txikitik* gaia jorratu zuten. Garai horretan, hortaz, idazle irabazleek izenak emango dituzte ezagutzera.

13:30ean, triki poteoa egingo dute herrian. Ondoren, bazkaria izango da. 16:30ean, Pirritx eta Porrotxek emanaldia eskainiko dute. Zezen suzkoa eta buruhandiak ere izango dira. Triki Ta Ke plaza taldeak ere musika eskainiko du, arratsaldean zehar. Hurrengo urtean, jaia Zubieta eta Aginaren artean egingo dute.

Eskualdeko eskola txikiak

Albiztur, Ikaztegieta, Abaltzizketa, Lizartza, Bidania, Altzo, Alkiza, Berrobi, Berastegi eta Zizurkil dira eskualdeko eskola txiki guztiak.

Ikasturte honen baitan hainbat ekitaldi berezi egin dituzte, berez eskola txikiak dituzten helburuekin bat egiteko. Besteren artean, ikasleek arteko harremanak honela sendotu egiten dira, eta ondo pasatzen dute. Denok bat egirik, gauza interesgarri asko egiteko aukera areagotu egiten da. Gurasoen laguntza ere ezinbestekoa da egun honetan.

GIPUZKOAN gehien irakurritako egunkarietan BIGARRENA*



HITZA euskarazko komunikazio esparrua egiteko beharrezko tresna



Euskarazko prentsak gero eta irakurle gehiago ditu *Mila esker*

*CIES-en 1. neurketa 2006. Azterketak Gipuzkoan 69.000 irakurle eman dizkigu; Herraldeko 23 herritan egin da, horietatik 13tan dago HITZA.

IBARRA ▶ ERAKUSKETA

Errealitate desberdinen zertzeladak

Angel Cuerdo tolosarraren 'Kolorezko mundua' ikusgai dago Kultur Etxean

IÑIGO TERRADILLOS

Ibarrako Kultura eta Gazteria Sailak Kutxa Gizarte Ekintza-aren laguntzarekin antolatutako *Munduan zehar bidaiatuz* bidaien inguruko astearen baitan, Angel Cuerdo tolosarraren *Kolorezko mundua* argazki erakusketa izango da ikusgai Benito Izagirre Kultur Etxean, hilaren 16ra bitarte.

100 argazki inguru biltzen dituen erakusketa honek Cuerdok azken urteetan India, Korea, Txina, Zanzibe, Egipto edota Orinokora egindako bidai ezberdinen eta izandako bizipenen isla berezia izan nahi du. «Urdina, berdea, horia... Kolore bakoitza pentsamendu bat da, sentimendu bat, adierazpen bat, bizitza ulertzeko modu bat; koloreek emozioak eta aldarreak sorrarazten dituzte, eta emozio eta aldarte horiek ez digute guztioi modu berean eragiten», dio egileak. Eta, hain zuzen ere, *Kolorezko mundua* argazki erakusketa-aren izenburuak «begirada munduari, haren bizimoduari, pentsamenduari eta kultur dibertsitateari» irudikatzen ditu.

Erakusketak biltzen dituen pintzelada txikiek egileak hamabost urtez eta bost kontinenteetan barrena piraguan, bizikletan, zaldiz edo oinez egin dituen bidaiak laburbiltzen dituzte. Tokian tokiko gairaiobideak erabiliz, bertako errealitateak ezagutu ahal izan ditu hurbiletik tolosarrak: budismoa, hinduismoa, taoismoa, islamismoa, Amazoniako chamaniismoa edota Afrika beltze-

ko sinesmenak. «Izadiarekin armonia ezin hobean bizi diren kultura zaharrak, begiradaren muga bakarra duten espazio zabal eta amaigabeetan».

Bestalde, eta erakusketa hilaren 16ra bitarte ikusgai izango bada ere, bidaien inguruko asteko ekitaldiak gaur amaituko dira ipuin kontaketa saioarekin; hain zuzen ere, Lur Kortaren eskutik *Munduko ipuinak* haurrei zuzendutako emanaldia izango da Kultur Etxean, 17:00etan.



Kolore-kultura. *Kolorezko mundua* argazki erakusketak begirada egiten dio munduari, bizimoduari eta kultur dibertsitateari. HITZA



Bizipenen isla. Tolosarrak azken hamabost urteetan egin dituen bidaietan izandako bizipenen isla izan nahi du argazki erakusketak. HITZA



Errealitateak. India, Afrika, Txina edota Egiptoko errealitateak ezagutu ahal izan ditu hurbiletik. HITZA

BERROBI ▶ KIROLAK



Gimnastika erritmikoan lehen pausoak

Erredakzioa ▶ Elduaingo Aintzane Agirre eta Berrobiko Arantzazu Rodas eta Garazi Goenaga —argazkian— gimnastak urte guztian zehar, ostiralero, aritu dira Belabieta Gimnastika Erritmikoko eskoletan parte hartzen. Estreinalako urtea izan da, gainera, Ibarrako taldean hiru gimnasta hauentzat. Hala, pasa den ostiralean, ikasturte amaierako festa egin zuten eta jendaurrean aritzeko aukera izan zuten. HITZA

IBARRA ▶

Ikasturte berrian, ludotekan izen-ematea

2006-2007 ikasturterako Txontxo ludotekarako aurrematrikularen epea hilaren 12an zabalduko dute. Haur kopurua 40ra mugatua da, eta lehentasuna dute Uzturpe Ikastolako haurrek eta Ibarrakoek. 40tik pasatuko balitz izen-emate hurrenkera errespetatuko dela jakinarazi dute. Aurrematrikula Uzturpe Ikastolako idazkari-tzaren bertan edo 943 67 12 99 zenbakian egin ahalgo da, hilaren 16ra arte.

ZIZURKIL ▶

'Lurra eta biok' gaur, Aste Berdearen baitan

Aste Berdearen baitan, gaur, 18:00etan, Atxulondo kultur etxean, *Lurra eta biok eskolan eta aisialdian* joko interaktiboarekin jolasteko aukera izango dute gaztetxoek.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411

- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**

- ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
- ▶ San Esteban: 006800
- ▶ Gernikako arbola: 006900
- ▶ Amarozko dispen.: 672637
- ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)

- ▶ **DYA:** 672536
- ▶ **Gurutze Gorria:** 674888
- ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
- ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930

- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzaran autobus.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurramendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

ZABALA DESGUAZEA

Beotibar Industrigunea, 18
BELAUNTZA

Tel./Faxa: 943 67 17 90
696 593 347



HERRI KIROLAK ▶



San Isidro egunean elkarrekin aritu baziren ere, bihar arerio izanen dira Rekondo (ezk.) eta Otaegi. I. GARCIA

Rekondo eta Otaegi 23 urtez azpikoen txapelaren bila

Bihar jokatuko dituzte Azpeitian Urrezko Aizkolariako eta Harri-jasotzaileko txapelketetako finalak, 23:00etan hasita

JAIONE ASTIBIA

Azpeitiko Izarraitz pilotalekua herri kirolaren gune bihurtuko da bihar gauean, 23:00etatik aurrera, eta nahiz Zizurkil aldeko nahiz Leitza aldeko aizkorazaleek aparteko saioa izanen dute ikusgai, bi herri hauetako semeak ariko baitira nor baino nor, txapela lortu beharrez, eginahaletan: Urrezko Aizkolaria Txapelketan, 23 urtez azpikoen sailean, Otaegi eta Rekondo elkarren aurka lehiatuko dira.

Biek ala biek, txapelketa honetan parte hartu duten bi aiz-

kolari taldeetan buru atera dira eta hauxe izanen dute, elkarrekin topo egingen duten aurreneko aldia (erakustaldietan bina-ka elkarrekin aritutakoak izan arren) eta txapela dute jokoan.

HITZAK biekien hitzegin du, eta biek sasoiko daudela adierazi diote, eta biek «duten guztia ematera» aterako direla plazara baieztatu. Egin beharreko lanari dagokionez, kanporaketa saioetako bera izanen dute: 45 ontzako ahalik eta kolpe gutxienean ebakitzea; beste 45 ontzako ahalik eta azkarren; 60 ontzakoarekin ere azkartasun proba izanen dute; eta az-

kenik, bi 45 ontzako eta bi kana-erdiko (54 ontzakoak) ebakitzea. Bihar erabakiko da guztia.

Jakin, bestalde, ikuskizun hau ETBk zuzenean emanen duela. Eta gazteen arteko final honetaz gain, Urrezko goreneko mailako beste bi final ere jokatuko dituzte. Urrezko Aizkolaria sariari dagokionez, Olasagastiren eta Nazabalen artean jokatuko dute finala; eta Urrezko Binakako Harri-jasotzailean, berri, Ostolaza II.a-Barinaga eta Landarbide-Izeta II.a bikoteen artean dago lehia.

JOSEBA OTAEGI ▶ AIZKOLARIA

«60 ontzako da koska, hor jo beharko da»

Joseba Otaegik (Zizurkil, 1983) bi urte inguru daramatza aizkorian eta dagoeneko bigarren finala izanen du biharko: «Dena ematera» joango da.

Nola zaude?

Nahiko ondo. Iaz, txapelketa batetik bestera ibili ginen eta gaizki iritsi ginen; aurtun, txapelketa guztia hilabete batean egin dugu, nahiko segidan izan da dena eta saio batetik bestera nahiko tarterekin, eta ondo gaude.

Urte pare bat daramatzazu aizkorian eta, besteak beste, bigarren finala duzu hau.

Bai, gustura nago. Nik uste ondo noala. Gainera, Gipuzkoako 2. mailako finalean sartzea ere lortu dut; eta hori bai ez nuela inondik espero!

Nola ikusten duzu Rekondo?

Hor dago koska! Berea eginez gero... Nire ustetan, gu baino koska bat goraxeago dago: aizkolaria eginagoa dago; erraz egiten du aizkorian...

Faborito bera ote den?

Bai; nik lasaia jokatu dut hala. Zer galdurik ez daukat eta neronena emanez, ematera joango naiz.

Nola jokatu duzu?

Kolpeakoa ikusten naiz okerrren, ez dakit behar bezala aztertzen eta. Bestetan jo beharra dago: hor huts eginez gero, 60 ontzakoan batez ere, hor denbora kendu daiteke. Gero, lan luzerako esanahi handia du horrek; hor jo beharko da. Lan luzetan nabiltz gustoen neroni ere eta... ◀

JON REKONDO ▶ AIZKOLARIA

«Banakako lanetan gusturago aritzen naiz»

Biharko finalerako «faboritotzat» jotzen duten arren, Jon Rekondok (Leitza, 1985) dioenez ez omen daki nondik atera den hori, «Otaegiren aurka ez naiz aritu eta».

Sasoiko zaude?

Bai, nahiko ongi. Atutxaren aurkakoan-eta gorabeheratsu ibili naiz, baina bai: erakustaldietan-eta ibili behar izaten dugu eta prestaketetan baino gehixeago jotzen da eta balioak dira. Orain, esan behar da uda eta negu ez garela gelditzen, eta horrela urte guztian sasoiari eustea ere zaila dela. Baina oso ongi nago.

Faboritotzat jotzen zaituzte.

Nahiko lasaia naiz eta ez dit eragiten horrek. Baina, gainera

ez dakit zergatik den hori, 3. mailan ongi aritu naizelako edo; Otaegiren aurka ez naiz aritu: nik Atutxaren aurka galdutako egin nuen, berak irabazi. Beraz, faboritoen kontu hori ez dago oso argi.

Nola ikusten duzu Otaegi?

Nik Atutxarekin bakarrik ikusi dut eta oso ongi aritu zen; aise irabazi zuen, denbora oso onak eginez.

Zer joko modu egingen duzu?

Denetan jo beharra dago: lan motza da eta adar tiki batek atzeratu dezake dena; lan guztiak dira garrantzitsuak. Orain, ni 60 ontzakoan ariko naiz gustuen. Banakakoetan oso gustura aritzen naiz, luzeak baino nahigo ditut kasik. ◀

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

Harpidedunei banatua ▶ 2006ko ekainaren 9a, ostirala ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA

goizez arratsaldez beroena **23** hotzena **17**

BIHARKO EGURALDIA

goizez arratsaldez

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA
(zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

ANTZERKIA

Aduna. Mareos. Pasaiako Antzerki Tailerraren ikuskizuna. 22:00etan, Asvinenean.
Txarama. Erreleboa. Iker Galartza eta Joseba Usabiaga aktore tolosarrekin. 20:00etan, kultur-osasun gunean.

DEIALDIAK

Albiztur. Bertsolaritza ikastaroa Amaia Agirre eta Aitor Mendiluzerekin. 20:00etan, Kultur Etxean. Kultur Astearen baitan.
Amezket. Euskara Elkartearen bilera. 18:30ean, balio anitzeko gelan.
Bidegoian. Idoia Sanchezen ipuin kontaketa. 16:00etan, herriko eskolan.

Ibarra. Munduko ipuinak. Lur Kortaren ipuin kontaketa saioa. 17:00etan, Benito Izagirre kultur etxean.
Ibarra. Gorritira irteera antolatatu du Haizetzan Raju mendi taldeak etzi. *Sua* filmarako grabaketa ere egingo dute arratsaldean. Izen-ematea, Ibarra Atari eta Zubiaurre tabernatan, Tolosako Denak-en eta 652 71 58 00 telefono zenbakian.
Tolosa. Adinekoen Astea: 10:30ean, meza; 11:00etan, tonbola; 16:00etan, bingoa kafetegian.

ERAKUSKETAK

Alegia. Maite Itsasoren margolanak. Hilaren 21a arte, Jubilatuen tabernan.

Ibarra. Mundu bete kolore. Angel Cuervo tolosarraren argazki erakusketa. Hilaren 16a arte, Kultur Etxean.
Tolosa. Aterpeak. Miguel Angel Oriberen eskultura erakusketa. Uztailaren 1a arte, Aranburu Jauregian.
Tolosa. Jesus Lopez Zuluetaeren lanak. Hilabete osoan, Saikin tabernan.
Zizurkil. Atxulondo kultur etxean klima aldaketari buruzko erakusketa izango da, etzi bitarte.

JAIK

Anoeta. 19:30ean, AHTren aurkako kontzentrazioa; 22:30ean, herri antzerkia frontoian. Herri Borondatearen Aldeko Jaien barruan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Areso. Goizueta, F. Loidi Etxea. 112.
Ibarra. Ugarte, M. T. Euskal Herria, 3. 943 67 32 74.

IRRATIA

Txolarre irrati
(107.5, 101.2 FM)
11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZaren errepaosa, albisteak, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
21:00-22:00. *Zaharrak Berri*, Hala Bedi irratiaren saioa, Arroza Irrati Ekoizpen Zentroaren eskutik.
22:00-23:00. *Arkako show* musika saioa.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

GALTZAUNDI ▶



Albizkaria. Galtzaundi.
Zenbakia. 236.a
(2006ko maiatzaren 26a).
Orrialdeak. 22.
Tirada. 5.000 ale.
Gai nagusia. Puntu bidezko karneta.
Beste gaiak. IpuinArtean I topaketak, bideoan; AHTren aurkako manifestazioa, Aitor Mendiluze gazteei bertsosozaleatasuna helarazten, agenda...
Argitaratzailea. Galtzaundi Euskara Taldea.
▶ Nafarroa etorbid., 6-behea.
▶ 943 65 50 04
▶ galtzaundi@galtzaundi.com
▶ www.galtzaundi.com

AIURRI ▶



Albizkaria. Aiurri.
Zenbakia. 257.a
(2006ko maiatzaren 26a).
Orrialdeak. 28.
Tirada. 2.500 ale.
Gai nagusia. Nerea Amilibia korrikalaria.
Beste gaiak. Jesusen Bihotza ikastolak 40 urte, Gazte Eguna Amasa-Villabonan, Eskeltzuko larreen irekiera, San Isidro Eguneko irudiak, Behar-Zana elkarte, Erniopeko Marxa, agenda...
Argitaratzailea. Manuel Larramendi Kultur Bazkuna.
▶ Kale Berria 47, 3. esk.
▶ 943 69 64 50
▶ aiurri@topagunea.com
▶ www.aiurri.com

Heldu den **larunbatean** ekainak 10 bi kantu ederdun CDa **dohainik** berriarekin

Joseba Tapia

Iraillean plazaratuko duen **Real Politik** berria diskoaren aurrerapen berezia

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Egoi Irazustabarrena (Alegia). Gaur 2 urte. Zorionak etxekoan partetik.



URTE ASKOAN
Irene Arana (Ibarra). Gaur 9 urte. Zorionak gurasoen eta Amaiaeren partetik.



URTE ASKOAN
Nerea Ormaetxea Esnaola (Alegia). Zorionak eta lau muxu handi ebekoan partetik.

Urtebetetzak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

hitza agurren tartea